



Gaia: Prozedura eteteko Erabakia.

Espedientea: 2021-2023 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2021-2022 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak emateko deialdia (2020ko urriaren 7ko Agindua. 2020ko urriaren 26ko EHAA, 210. zk.)

Hezkuntza Saila

2021-2023 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2021-2022 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak iragarri zituen Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 7ko Agindua dela eta (2020ko urriaren 26ko EHAA, 210. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar da; izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukari buruz irizpidea zehazteko, horrelako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.

Hori dela eta, jakinarazten dugu 2021eko otsailaren 9ean eskatu zaiola Ikerketako Estatu Agentziari aipatutako txostena emateko eta bidaltzeko, administrazio-espedienteari gehitzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea etenda egongo da, gehienez hiru hilabetez, eskaera egiten denetik derrigorrezko txosten arrazoitua jaso arte.

Horren arabera,

ERABAKITZEN DUT

2021-2023 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2021-2022 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak iragarri zituen Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 7ko Agindua dela eta (2020ko urriaren 26ko EHAA, 210. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den espedientearen administrazio prozeduraren tramitazioa etetea, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena jaso eta espedientera gehitu arte, Ikerketako Estatu Agentziaren Koordinazio eta Ebaluazio Azpiatalakoa. Txosten hori jasotzeari buruzko informazioa unean-unean emango zaio interesdunari.



Halaber, jakinarazten dugu erabakitako etetearen epea ezin izango dela inolaz ere hiru hilabetetik gorakoa izan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erabaki hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 11a.

Amaia Esquisabel Alegría
Ikerketako Zuzendaria